



Este otoño, del 4 al 9 de diciembre, Orereta Abesbatza estará en la ciudad de Alstensteig situada en plena Selva Negra dentro de un intercambio con el coro Christophorus Kinder- und Jungendchor, dentro del que participará en el tradicional ciclo de conciertos de Navidad que en Alemania se celebra en los entornos de la festividad de San Nicolás.

Los jóvenes cantores del coro Christophorus Kinder- und Jungendchor de Altensteig estuvieron en Erreterria este pasado mes de julio. Los 47 jóvenes cantores de entre 12 y 15 años del coro alemán, acompañados de sus directores, participaron en un intercambio musical con los coros de base de Andra Mari Abesbatza. Durante su estancia entre nosotros los jóvenes cantores se alojaron en familias de Erreterria, y además de trabajar el canto coral, las chicas y chicos tuvieron oportunidad de conocer un poco Euskal Herria.

El objetivo del intercambio, además de profundizar en el mutuo conocimiento de jóvenes y de las entidades corales, busca trabajar conjuntamente en el campo de la preparación coral. De este modo, del mismo modo en que se hizo en Erreterria, los coros de cantera de Andra Mari Abesbatza y el coro juvenil de Altensteig, ensayarán y trabajarán conjuntamente en Alemania de la mano de los directores de ambas agrupaciones corales, Wolfgang Weible e Imanol Elizasu.

Este trabajo conjunto tuvo su culminación en el concierto que el coro de niños y jóvenes Christophorus de Altensteig y las corales Orereta Txiki, Orereta y Oinarri ofrecieron el 8 de julio en la Parroquia de Andra Mari de Fátima (iglesia de los Capuchinos). Las corales ofrecieron entonces una muestra de su repertorio por separado, para cantar conjuntamente en la culminación del concierto. Las corales interpretaron un repertorio de canciones austriacas y alemanas sobre la base Tritsch Tratsch Polka de Richard Strauss, que habían trabajado conjuntamente con Wolfgang Weible, para cantar posteriormente, bajo la dirección de Imanol Elizasu, Izar Ederra de Francisco Escudero y Kuku ué de Eva Ugalde.

## A.M.A.ren FITXA

# Gipuzkoako organo-ondarea

Gipuzkoak Europako organo talde garrantzitsuenetako bat biltzen du bere baitan. Gure lurraldeko organo-ondarea 150 instrumentu inguruk osatzen dute. Organo horien artean Lorenzo Arrazolak 1761ean eraikitako Ataungo San Martin elizako organo barroko bikaina azpimarra behar da; barroko garaiko Gipuzkoan gorde diren zazpiketako bat. Organo-ondare handi honetan organo erromantiko frantziarren bilduma bikaina nabarmentzekoa da, munduko handiena. Aristide Cavaillé-Coll da bilduma horretako burua, 1861 eta 1898 urteen artean Gipuzkoan mota eta tamaina guztietako 14 organo jarri baitzituen. Aurreko organo horiez gain aipatu beharrekoak dira Stoltz-frères (Paris), Mutin, Merklin/Gutschenritter, Puget, Didier eta beste organogile frantziar batzuek eraikitakoak. Aipatzekoa da baita ere Walcker enpresa alemaniarrak 1914an jarritako instrumentu ederra. Gipuzkoako aparteko organo-bilduma horri XIX. mendean amaieratik aurrera erromantizismoaren eraginpean sortutako instrumentuak gehitu behar zaizkio, besteak beste Aquilino Amezuak, Eleizgaray y Compañiak, Amezua y Compañiak, Lope Alberdik, Melcherrek eta Dourtek erakitakoak Eta 1940tik aurrera Azeptian Organería Española SA enpresak sortu izanak, ondarea aberastu zuen, bereziki, 1953an Donostiako Artzain Onaren katedralean eraiki zuen organo neoklasikoarekin.



Ataungo San Martin elizako organoa



## Santa Cecilia

### GURE JAIA

Udazkenara begira musikak berpiztea du gure jaia dugun honetan. Santa Zezilia Zikloa zain dugu azaroan. Musikaren jaia, zentzu eta baliabide guztietan, eskaintza ugaria eta gero eta zabalagoa 30. urtera iritsi den abesbatza eta musikarien festa honetan.

Andra Mari Abesbatzak antolatzen duen musikaren bederatzirenen honetan, bat egiten dugu Erreterriako musika eta abesbatza taldeak maila goreneko eskaintza emateko musika zale guzietan. Herrikoa eta herriarentzat, Erreterriako musikari eta musika zaleak bat eginda gure jaia egin, ospatu eta gozatzeko. Santa Zezilia Musika Zikloak, gurea, guretzat eta guztientzat egina, guztion beharra du. Zu behar zaitu.

En otoño la música vive su despertar con la celebración de la fiesta de la música, en todas sus facetas y vertientes. El Ciclo de Santa Cecilia nos espera en noviembre con una oferta cada vez más amplia y de mayor calidad, en esta conmemoración de los amantes de la música y el canto que ha llegado a su 30 edición.

Organizada por Andra Mari Abesbatza este novenario festivo músico-coral reúne a los grupos musicales de Erreterria, en una programación de calidad a la par que diversa que ofertamos a todos los aficionados a la música. Un Ciclo en el que los grupos musicales de Erreterria nos unimos para disfrutar de la música, en una oferta que nos necesita, pero que sobre todo te necesita a ti, amante de la música.



## Illeta bizi-eresia

Aurtengo Musika Hamabostaldia Francisco Escudero konposatzaile eta maisu donostiarra gogoratu eta omendu nahi izan du bere jaiotzaren mendeurrenean (Donostia, 1912-Zarautz, 2002), eta asmo hori betetzeko Andra Mari Abesbatzari egin zion enkargua Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin batera jardun zedin. Aukeratutako obra: *Illeta*. AMA-k oso gogo onez hartu zuen eskaria, kontuan izanik Escudero maisuaren lana ondo ezaguna duela aspalditik, bai *Illeta* bera eta baita beste zenbait obra ere. Ezin dugu gogora ekarri gabe utzi 2001garren urtean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak "Basque Music Collection" barruan Escuderoi eskaini zion grabazioan AMA-k parte hartu zuela Arturo Tamayoren zuzendaritzapean. Artean Escudero bizi zen, eta kontu jakina da irriketan egon zela, horrela behar zuen gainera, grabazioa bideraturik zegoela jakin zuten arte, bere emazte Goyita eta seme-alabak bezalaxe.

Escuderotarrek ez bairik gabe gorai patzen dute, aukera duten guztian, AMA-k euren senar eta aitaren lanarekiko beti izan duen jarrera, eta oraingoan ere euren poza adierazi zuten AMA izan zelako Musika Hamabostaldia aukeratutako abesbatza. Abuztuaren 17an, kontzertua bukatutakoan, Escudero maisuaren familia ez-ezik Kursaal-era joandako lagunetatik gehienak zeuden *Illeta*-ren interpretazioarekin oso ondo irizita, eta hunkituta. Izan ere, ondo azpimarratu behar da Francisco Escudero non oinarritu zen, zertan inspiratu zen *Illeta* idazterakoan horren baitan dagoen musika sentitu eta ulertzeko: Xabier Lizardi gizon eta poeta handiak amonaren heriotzari eskainitako "Biotzean min dut" hunkigarri eta ederrean. Beraz, ezinezkoa litzateke abesbatzak adierazi zituen eskarmentu, jakituria eta sentiberatasunik gabe *Illeta* zor zaion errespetuz eskaini. Juan San Martinek idatzi zuen moduan, *Illeta* dugu Euskal Herriko bizi-eresia.



73. Donostiako Musika Hamabostaldia: Illeta (Argazkia: Musika Hamabostaldia / Iñigo Ibañez)

- Urriaren 6a**  
Andra Mari Bergaran  
Organo Romantikoko Nazioarteko Jaialdia
- Urriaren 7a**  
Andra Mari Loiolan  
Organo Romantikoko Nazioarteko Jaialdia
- Azaroaren 19tik 24ra**  
Santa Zezilia Musika astea  
AMAK antolatua
- Abenduaren 4tik 9ra**  
Orereta Altensteig-era (Alemania)  
Christophorus Kinder- und Jugendchorrek antolatua
- Abenduaren 15a**  
Orereta-Oinarri Altzan  
Altzako Mintegiak antolatua
- Abenduaren 19a**  
Andra Mari Baluartean (Iruñea)  
Mesias partehartzailea  
La Caixak antolatua
- Abenduaren 22a**  
AMA Fatimako Andra Mariaren Elizan  
Gabon kontzertua AMAk antolatua
- Abenduaren 29a**  
Orereta txiki eta Orereta Kiroldegian (Erreterria)  
"Gabon Abesti Sariketa Probintziala"  
Ereintza Elkarteak antolatua
- Urtarrilaren 26a**  
Andra Mari Elizondan (Nafarroa)  
Juanito Erasori omenaldia



## Harrobi taldeek gogoz aurrera

Kurtso berria eta talde berrituak ditugu Andra Mari Abesbatzaren harrobian. Musika tailerrea 16 abeslari, Orereta txikiak 70 abeslari, 63 Oreretak eta 23 Oinarrik. 170tik gorako haur eta gazte abeslari kopuru honek ilusioa eta indarra ematen dio Andra Mari Abesbatzaren proiektuari. Mutil abeslari korua ere gorantz doa, aurtengo 35 partaide dituen eskolania osatuaz.

Aurtengo berrikuntza esanguratsua, gure abeslariak musika hizkuntza ere prestakuntza jasoko dutela da. Abesbatza, Ahots emisioa eta musika hizkuntza. Formazio integrala

Ekintza desberdin ugari kurtsoaren lehen hiru hilekoan

**Urriak 13-14**, konpromiso artistikoak prestatzeko asmoz, Hondarribiko aterpetxean Orereta abesbatzak saio intentsiboak burutuko ditu.

**Azaroko Xexili kontzertuan** Albert Alcarazen "Zelaietakua" obraren estreinaldia.

**Abenduan** Alemaniako Altensteig herrian bi kontzertu eskainiko ditu Orereta abesbatzak. (Christophorus Kinder- un Jugendchor taldearekin elkar trukaketa barruan).

Altzako mintegiak gonbidatua, Orereta eta Oinarri abesbatzek **Abenduak 15ean** Altzan kontzertua eskainiko dute.

Gabon emanaldia eta gabon lehiaketa

Errenteriako zazpi eskolekin "Abesbatza eskolan" proiektua ere martxan da, harrobiko hiru abesbatzen parte hartzearekin.

Kurtsoan zehar emanaldi eta ekintza gehiago sortuko direlakoan gaude. Lan, energia eta ilusio faltarik ez dugu izango, ez!



## Ciclo Internacional de Órgano Romántico

Andra Mari Abesbatza cantará en la XIII edición del Ciclo Internacional de Órgano Romántico los días 6 y 7 de octubre en la iglesia de Santa Marina de Bergara y en la Basílica de Loyola. Los sábados y domingos del mes de octubre los conciertos del Ciclo Internacional de Órgano Romántico -que el presente año llega su decimotercera edición- se celebrarán en la iglesia parroquial de Santa María la Real de Azkoitia, en la Basílica de Loyola y la iglesia de Santa Marina de Bergara, como relevo desde el año pasado de la iglesia parroquial de San Pedro de Bergara con motivo de las obras de rehabilitación que se están realizando en esta. Andra Mari Abesbatza, bajo la dirección de José Manuel Tife, con Ana Belén García al órgano, actuará el 6 de octubre en Santa Marina de Bergara y el 7 en la Basílica de Loyola, con el siguiente programa:

Wer nur den lieben Gott läßt walten  
Veni Domine op. 39 nº 1  
Ave Maria op. 23 nº 2  
Choral de Lobgesang op. 52  
**Felix Mendelssohn**

Laudate Dominum  
Ave María  
Tu es Petrus  
Final (Órgano)  
**Jesús Guridi**

Misa  
Kyrie, Gloria, Sanctus-Benedictus, Agnus Dei  
**Francisco Escudero**

Magnificat in B flat  
**Charles Villiers Stanford**



## El Mesías de Haendel en el Baluarte

La coral Andra Mari Abesbatza de Errenteria cantará como coro principal de escenario, junto con la Orquesta Sinfónica de Navarra, bajo la dirección de William Lacey, en el Mesías participativo que se ofrecerá en el Baluarte de Pamplona el 19 de diciembre, organizado por la Fundación de la Obra Social de La Caixa.

La Obra Social Fundación La Caixa inició hace diecisiete años en Barcelona la experiencia de organizar conciertos participativos en torno al Mesías del genial George Friedrich Haendel. La obra fue escogida por su excepcional calidad para, en su entorno, reunir a grupos corales y cantantes aficionados a la música coral que junto a coros invitados, orquestas, solistas y directores de prestigio internacional, interpretan esta obra emblemática del repertorio sinfónico coral de todos los tiempos. El año 2010 Andra Mari Abesbatza participó como coro principal en el primer Mesías participativo realizado en Navarra y vuelve al Baluarte, después de haberla estrenado como evento participativo en el Teatro Principal de Vitoria-Gasteiz, el pasado año.